



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2021ko uztailak 6

Vitoria-Gasteiz, 6 de julio de 2021

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK GIZARTE TRANTSIZIOKO ETA 2030 AGENDA KO ERAGILE ANITZEKO FOROA SORTU DU

- Lehendakaria izango du buru eta lankidetzarako eta aholkularitzarako organo bat izango da Euskadiko politika publikoetan 2030 Agendaren harmonizazioan eta garapenean laguntzeko
- Eusko Jaurlaritzako sail guztietako, hiru foru aldundietako, Eudeleko eta euskal hiriburu etako udaletako ordezkariak osatuko dute organo berria, baita lankidetzaren publiko/pribatua eta gizarte zibil antolatua ordezkatzeko dituzten erakundeek ere
- Foro honen sorkuntza Eusko Jaurlaritzak berriki onetsitako *2030 Agendako Lehentasunen Euskal Programan* bildutako lehentasunetako bat da

•
Gobernu Kontseiluak Dekretu bat onetsi du gaur, **Euskadiko Gizarte Trantsizioko eta 2030 Agendako Eragile Anitzeko Foroa** sortu eta arautzen duena. Foroa lankidetzarako eta aholkularitzarako organo bat izango da, Euskadiko politika publikoetan 2030 Agendaren harmonizazioan eta garapenean laguntzeko.

Dekretu berria Gobernu Kontseiluak berriki onetsitako *2030 Agendako Lehentasunen Euskal Programaren* barruan sartzen da; zehazki, Koordinazio eta gobernantza kolaboratiboari (II. Lehentasuna) dagokiona.

Lehendakaria izango da Foroan buru eta erakunde hauetako ordezkariak osatuko dute: Eusko Jaurlaritzako sail guztiak; hiru foru aldundiak; EUDEL eta euskal hiriburu etako udalak; Euskal Herriko unibertsitateak; hiru pertsona Euskadiko Hirugarren Sektoreko erakundeak ordezkatzuz, Sareen Sareak proposatuta; pertsona bat Excelencia Basque Center for Climate Change (BC3) elkarteak ordezkatzuz; pertsona bat Basque Research and Technology Alliance (BRTA) partzuergo zientifiko/teknologikoa ordezkatzuz; eta pertsona bat ACLIMA, Basque Environment Cluster ordezkatzuz.

Organo berriaren egitura hau izango da, Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra eta Lan Batzordeak edo Taldeak eta, besteren artean, funtzio hauek beteko ditu:

- Euskadin Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) inplementatzeko gidalerroak eta orientazio-lerro estrategikoak ezartzen eta lantzen laguntzea.
- Euskal 2030 Agenda baten plangintza aztertzea, bultzatzea, sustatzea eta proposatzea, koordinatua eta integrala, bertan bildutako helburuak lortzeko eta 2030 Agendako Lehentasunen Euskal Programaren garapenean laguntzeko.

- Gobernuari, izaera ez lotesle batez, ekimenak eta proposamenak helaraztea, Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJH) dagokienez jarduerak hobetze aldera.
- Euskadin 2030 Agenda sustatzen, bultzatzen eta garatzen lagunduko duen beste edozein funtzio, erakunde arteko koordinazioaren eta maila anitzeko kooperazioaren bitartez.

Foroaren Osoko Bilkuraren bilerak ohikoak izango dira, urtean bitan gutxienez, eta, ahal den guztietan, telematikoak izango dira, jasangarritasun-irizpideekin hartutako konpromisoa betez. Batzorde Iraunkorraren eta Lan Batzordeen edo Taldeen kopurua eta jardute-eremua Gizarte Trantsizioko eta 2030 Agendako Agente Anitzeko Foroaren barruan adostuko dira.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOAREN EREDU PROPIOA FINKATUKO DUEN LEGE-PROIEKTUA ONARTU DU GOBERNU KONTSEILUAK

- **Euskal Enplegu Publikoaren lege-proiektuak euskal administrazio publikoetan lan egiten duten 100.000 langile baino gehiagoren jarduera arautzen du**
- **Arauk enplegu publikoa ordenatzeko eta profesionalizatzeko tresnak jasotzen ditu, hala nola jarduna ebaluatzeko sistema, karrera profesionalari zuzenean lotua**

Gobernu Kontseiluak Euskal Enplegu Publikoaren lege-proiektua onartu du gaur, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten 100.000 langile baino gehiagoren jarduera antolatu eta arautuko duena. Arauak garapen profesionalaren alderdi guztiak arautzen ditu, eta euskal enplegu publikoaren eredu propioa definitzen eta finkatzen du. Duela 32 urtetik indarrean dagoen Funtzio Publikoaren Legea eguneratzen du.

Lege-proiektuaren xedea da euskal enplegu publiko osoa antolatzea, haren araubide juridikoa definitzea eta hura kudeatzeko tresnak arautzea. Hala, arlo publikoan lan egiten duten pertsonen alderdiak arautuko ditu, beren ibilbide profesionalari dagokion guztian, LEP batera aurkezten direnetik erretiroa hartu arte: Enplegu publikoaren antolamendua eta egitura; ordainsari sistemaren diseinua; enplegu publikoko organoen eta haien eskumenen erregulazioa; prestakuntza eta garapen profesionala; edo langileen karrera profesionala.

Euskal erakunde-sarean enplegu publikoaren koordinazioan aurrera egitea da ekimenaren helburua eta, horretarako, organo berri batez hornitzen da: Enplegu Publikoa Koordinatzeko Batzordea. Foro horretan ordezkariak duten erakundeek esperientziak partekatzeko, irizpideak bateratzeko edo enplegatu publikoentzako politika komunak sustatzeko aukera izango dute. Arauak bere aplikazio eremuan sartzen ditu, funtzionario publikoak ez ezik, euskal administrazio publikoen zerbitzuko lan-kontratuko langileak ere. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako, foru eta toki administrazioetako, EHUKo administrazioako eta zerbitzuetako langileei eta euskal erakunde sareko erakunde instrumental eta aholku emaileei eragiten die.

Lege-proiektuak euskal araudia guztiz modernizatzea ekarriko du, Euskadiko administrazio publiko guztietan lan egiten duten pertsonen errealitate berrira egokituko baita. Horrela, gaur egun oraindik indarrean dagoen eta 1989koa den araudia eguneratuko dugu. "Gure azken helburua da oinarritzko berrikuntza elementuak txertatzea, enplegu publikoa profesionalizazio maila handiko erakundea, inpartziala eta emaitzen kudeaketaz arduratsua izan dadin", adierazi du Olatz Garamendi Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailburuak, Gobernu Kontseiluaren osteko prentsaurrekoan.

Enplegu publikoa antolatzeko, planifikatzeko eta profesionalizatzeko tresnak biltzen dituen araua da, hala nola antolamendu planak edo jarduna ebaluatzeko sistema. Azken horrek lotura zuzena du karrera profesionalarekin, eta administrazio publikoen eraginkortasunean eta zerbitzuak ematean eragiten duen elementutzat hartzen da. Horrela, funtzionarioek aurrera egin ahal izango dute Administrazioaren barruan. Gainera, arauak Zuzendaritza Publiko Profesionalaren figura jasotzen du, prozedura publiko bidez eta merezimenduak eta gaitasunak baloratuta, zuzendaritza mailako izendapenak egin daitezzen.

Langileen etengabeko prestakuntzak hainbat alderditan duen garrantzia azpimarratzen du ekimenak, eta IVAPen lankidetzaz nabarmentzen du horri dagokionez. Horrez gain, eguneroko lana garatzeko konpromiso etiko bat azpimarratzen du, ez soilik kargu publikoena, baita Administrazioako langile guztiena ere. Araua genero berdintasunean, hizkuntza berdintasunean (euskara eta gaztelania) eta desgaitasun intelektuala edo mentala duten pertsonentzako hautaketa prozesu independenteak deitzeko aukeretan oinarritutako printzipioetan oinarritzen da.

Enplegu publikorako sarbidean, lege-proiektuak hautaketa prozesuak azkar eta eraginkortasunez garatzea gaitzen eta bultzatzen duen esparrua ezartzen du. Eta hautaketa organoak profesionalizatzeko aukera jasotzen du.

Garamendi Sailburuak azpimarratu duenez, erakundeek eta sindikatuek lan eskerga egin dute proiektua egiteko. "Aprobetxatu behar dugun lana da eta, gaur, eskerrak eman nahi dizkiet guztiei eta balioa eman". Prozesu horretan negoziazioak duen balioaren erakusgarri, adierazi du lege-proiektuak titulu eskusibo bat eskaintzen diola negoziazio kolektiboari, eta bertan arautzen dituela bere printzipio orokorrak edo negoziazio mahaiak.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

GOBERNU KONTSEILUAK TRANSFERENTZIEN BATZORDE MISTOAN ADOSTUTAKO LAU ESKUALDATZEEN DEKRETUAK ONARTU DITU

- **Izapide horrekin, honako hauek eskualdatzen dira: Espetxeak, Errepideko garraioa, ISSN kode bibliografikoa eta Ondarroako Itsas Barrutiko eraikina**
- **Espetxeen transferentziak datorren urriaren 1etik aurrera izango du eragina, eta Errepideko garraioak, berriz, Estatuarekin eta Foru Aldundiekin hitzarmenak sinatzen direnean**

Gobernu Kontseiluak Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren azken akordioa onartu du gaur. Horren bidez, Euskadiri lau gai eskualdatzen zaizkio: Espetxeak, Errepideko garraioa, ISSN nazioarteko kode bibliografikoa eta Ondarroako Itsas Barrutiko eraikina. Lau eskualdatzeak maiatzaren 10ean Bilbon egindako Batzorde Mistoan adostu ziren.

Joan den astean Ministroen Kontseiluak lau transferentzien Errege Dekretua onartu ostean, Eusko Jaurlaritzak Batzorde Mistoaren akordioa onartu du gaur. Horrela, lau gaien eskualdaketa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) hurrenez hurren euskal Dekretua eta Espainiako Errege Dekretua argitaratzen direnetik aurrera gauzatuko da.

Hala ere, zehaztu behar da Espetxe arloko eginkizunen eta zerbitzuen transferentziak datorren urriaren 1etik aurrera izango duela eragina, hala erabaki baitzuten Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak eta Lurralde Politika eta Funtzio Publikoko Ministerioak.

Ildo beretik, Errepideko garraioaren gaineko giza baliabideen, aurrekontu baliabideen eta ondare baliabideen transferentzia Eusko Jaurlaritzaren, Espainiako Estatuaren eta hiru Foru Aldundien arteko hitzarmenak sinatzen direnean gauzatuko da. Edonola ere, hitzarmen horiek 2021. urte honetan zehar egin behar dira. Horrela, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartuko ditu oso-osorik Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan igarotzen den errepideko garraioaren antolamendua, koordinazioa, ikuskapena eta kontrola, bai eta, bertatik igaro gabe, jatorria eta helmuga Euskadin dutenak ere. Laburbilduz, bere gain hartuko ditu garraio operadorearen baimenaren kudeaketa, garraio emakidak ematea eta kudeatzea, eta lanbide gaitasuneko azterketak kudeatzea.

ISSN kode bibliografikoaren eta Ondarroako portuan dagoen Itsas Barrutiaren eraikinaren kasuan, bi transferentziak Dekretua EHAAn eta Errege Dekretuaren BOEn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera gauzatuko dira.

Ekonomia eta Ogasuna

**“NON IKUSTEN DUZU EUROPA EUSKADIN?” 14 ETA 25 URTE
BITARTEKO GAZTEENTZAKO ARGAZKI-LEHIAKETAREN
HAMARGARREN EDIZIOAREN DEIALDIA**

- **Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzaren ekimenaren bidez, Europa hurbildu nahi zaie gazteei eta, horretarako, animatu nahi dira argazki batean islatzera nola ikusten duten Europak laguntzen duela beren ingurunearen garapenean**
- **Lanak irailaren 8tik urriaren 8ra aurkeztu ahalko dira**

Gobernu Kontseiluak, gaur, Ekonomia eta Ogasuneko Sailburuaren agindua onetsi du; haren bidez, **“Non ikusten duzu Europa Euskadin?”** argazki-lehiaketaren hamargarren edizioaren deialdia egin da.

Lehiaketan parte hartzeko interesa duten gazteek argazkiak euskadi.eus plataformaren bidez bidal ditzakete eta Europaren inguruan duten ikuspegia modu sortzailean partekatu.

Argazki-lehiaketa honen helburua da gazteei EGEFek Euskadiko eskualde-garapenerako eginiko ekarpenaren berri ematea; funts horrek jarduera inbertitzaileak, proiektuak eta egindako ekimenak finantzatzen ditu. Era berean, Europarekin zerikusia duten alderdien gaineko interesa piztea ere bada xede, eta, horretarako, hizkuntza teknologiko hurbila erabiltzea eta sare sozialen erabilera Europako zabalkunderako bitarteko berri gisa finkatzea.

Argazkiek Euskadiren barruan EGEFen edo Europako beste laguntza batzuen finantzaketa jaso duten ekimen edo proiektuak erakutsi beharko dituzte.

Lanak **www.instagram.com/federeuropaeuskadi** bidez aurkeztuko dira, **irailaren 8tik urriaren 8ra**, bi egun horiek barne.

Hiru sari emango dira: Smartphone bat, Smartwatch bat eta bluetooth aurikular batzuk.

Lehiaketaren gaineko argibideak eta oinarriak:

www.instagram.com/federeuropaeuskadi

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 50,4 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU OINARRIZKO ETA BIKAINTRASUNEN IKERKETA ZENTROEN FINANTZIAZIOAKO, 2022-2025 ALDIAN

- Hezkuntza Sailak 8,4 milioi euroan handitu du finantzazioa, 2018-2021 aldireraino alderatuta; %20ko hazkundera esan nahi du horrek
- Munduan lehen mailan egongo diren ikerketa-zentroen aldeko apustua egiten du Euskadik, eta zentro horien ikerketak gero eta eragin handiagoa izan dezaten gure ekonomian eta gizarte-sarean
- Bikaintasunera bideratutako finantzaketa handitu egingo da; gutxienez, % 46,5

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bilera onartu du, 2022-2025 aldiari Oinarriko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroei (BERC deiturikoei) dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Agindua. Hezkuntza Sailak, lehen aldiz, 50 milioi euro baino gehiago bideratu ditu mailarik goreneko ikerketarako: 50,4 milioi euro zehazki, aurreko lau urteko deialdiaren baino 8,4 milioi euro gehiago (2018-2021 aldia izan zen aurrekoa). Honela, deialdi honen diru-kopurua %20 hazi da.

Diru-laguntza hauen bidez lehen mailako ikerketa zientifikoa sustatu nahi da, Euskadin ikerketa zientifiko eta teknologikoaren kalitatea areagotzeko, batetik, eta estrategikotzat jotzen diren espezializazio zientifikoko arloetan nazioartean ezagutza lortu duten ikertzaileak erakartzeko asmoz, bestetik. Arlo horiek egiten diren ikerketaren bikaintasuna eta nazioarteko eragina katalizatuko dituzte, betiere egin beharreko jarduerak Euskadiko 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren jasotako estrategiekin lerrokatuz.

Ekimen honek harreman estua du Ikerbasque Fundazioak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistematik kanpoko ikertzaileak erakartzeko egiten duen lanarekin.

Euskadik munduan lehen mailan izango diren ikerketa-zentroen aldeko apustua egiten du, zentro horiek gure ekonomian eta gizarte-sarean gero eta eragin handiagoa izan dezaten. Horregatik, deialdi honek, aurrekoaren ildotik, bikaintasuneko ikerketan mundu mailako erreferentzia izango den zentro bat edo gehiago eratzeko berariazko finantzazioa jasotzen du, deialdiaren aurrekontuaren %10 horretara bideratuz. Ikerketa zentro hauen ezaugarria da bikaintasun-talentua erakartzeko gaitasun handia, hala nola ERC laguntzak eta Ikerbasque ikertzaileak, bai eta maila zientifiko goreneko aldizkarietan eragin handia izatea, eremu estrategikoetako nazioarteko proiektuetan parte hartzea eta munduko beste zientzialari batzuen aipamen ugari izatea ere.

Era berean, deialdi hau Hezkuntza Sailak abiarazitako beste ekimen batzuen osagarria da, hala nola Ikur 2030 Estrategia, ibilbide luzeko ikerketa-ekimen enblematikoak sustatzen dituenak. Euskadin egiturazko aldaketa bat bultzatzeko

helburuz jarri da abian estrategia hau, eragin zientifiko, teknologiko, enpresarial eta soziala izango duen aldaketa, BERCak buru dituen bikaintasuneko oinarrizko ikerketatik abiatuta.

Dirulaguntza hauek, beraz, BERCen garapenari laguntzea dute helburu, haien jarduera ez ekonomikoari finantziarioa eskainiz, proposamenen eta emaitzen ebaluazioaren bidez. Diru-laguntza jasotzen duten ikerketa zentroek, besteak beste, honako gastu hauei aurre egiteko erabili ahal izango dituzte laguntza ekonomikoak: pertsonal gastuak, ondasun inbentariagarriak eskuratu, eraiki, birgaitu, hobetu edo alokatzeko, material suntsikorren hornidurarako, edo jarduera zientifikoak antolatzeke.

Ikerbasque Fundazioa, erakunde laguntzaile denez, dirulaguntza hauen kudeaketaz arduratuko da. Beste zenbait eginkizunen artean, zentroek aurkezturiko proposamenen ebaluazioa burutuko du, bai eta lortutako emaitzen amaierako ebaluazioa ere.

Bikaintasuneko ikerketa-plan estrategikoa

BERCen helburua zientzia eta teknologiko ikerketa berritzailea bikaintasun zientifikoko ingurune batean sustatzea denez, deialdi honen betekizuna 2022-2025 aldirako ekintza-plan bat aurkeztea da. Deialdi honetan berritasuna da BERC zentroyen nazioarteko lidergoari garrantzi handiagoa eman zaio ebaluazioan.

Era berean, genero-berdintasunerako politika indartu egiten da, zentroaren bikaintasuna ebaluatzeko prozesuaren funtsezko elementu gisa. Sortutako ezagutza transferitzeko eta zientzia zabaltzeko politikak funtsezko ardatz izaten jarraitzen du, inola ere ahaztu gabe oinarrizkoak direla prestakuntza eta nazioarteko ospea duen talentu ikertzailea erakartzea, edo Euskadirako interes zientifiko, teknologiko, ekonomiko eta soziala duen arloetako ikerketa-agenda garatzea.

BERC zentroyen finantzaketa bi kategoriatan banatzen da: oinarrizkoa eta bikaintasuneko. Planteatutako helburu berrien ildotik, deialdi honetan zentroaren bikaintasunari lotutako finantzaketa gutxienez aurrekontuaren % 46,5 izango da, 6,5 puntu handituz 2018-2021eko deialdiarekin alderatuta, eta, horrela, bikaintasunari lotutako helburuen araberrako finantzaketa handiagoa lortzeko bidean aurrera eginez.

BERC. Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroak

Oinarrizko eta Bikaintasuneko Ikerketa Zentroak (Basque Excellence Research Centres- BERC) Euskadirako interes zientifikoko eremuetan ezagutza sortzeko egiturak dira eta ikerketaren bikaintasuna dute ezaugarri. Zentro hauek Euskal Unibertsitate Sistemari eta Euskadin burutzen den ikerketa zientifiko guztian puntako izateko sortuak dira, bai eta Europako jakintzagune izan daitezzen ere, mundu zabalean dauden beste zentro batzuekin loturik.

BERC zentroak eratu eta martxan jarri ondoren, Euskadiko unibertsitateetako eta beste I+G+b zentro batzuetako ikertzaileekin elkarlanerako mekanismoak

ezartzen dituzte, honela ikerketarako duten gaitasuna nahiz lehiakortasuna bultzatuz.

Egun, honako hauek dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean BERC kategorian –eta Hezkuntza Sailaren menpe- aurki ditzakegun zentroak:

- Achucarro - Basque Center for Neuroscience
- BC3 – Basque Centre for Climate Change
- BCAM – Basque Center for Applied Mathematics
- BCBL – Basque Center on Cognition, Brain and Language
- BCMATERIALS–Basque Center for Materials, Applications and Nanostructures
- DIPC- Donostia International Physics Center
- FBB - Bizkaia Biofisika Fundazioa
- MPC – Materials Physics Center
- POLYMAT – Basque Center for Macromolecular Design and Engineering

Gaur egun, zentro hauek 800 ikertzaile inguru dituzte lanean, BERCaren ikertzaile eksklusiboak eta atxikitako langileak batuta (Euskal Unibertsitate Sistemako langileak, UPV/EHUkoak, zentroarekin ikertzaile gisa lankidetzan estuan ari direnak). Zentro hauen produkzio zientifikoari dagokionez, 2020an Euskadiko BERC zentroek 1.350 artikulua publikatu zituzten aldizkari indexatuetan. Kopuru hori dagoeneko Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sistema osoaren produkzio zientifikoaren %18 da, eta zentro hauek sisteman duten gero eta pisu handiagoaren erakusle. Oro har, euskal ekoizpen zientifikoaren %80 baino gehiago BERC zentroen eta Euskal Unibertsitate Sistemaren testuinguruan egiten da.

Hezkuntza

2,8 MILIOI EURO DOKTORETZA-ONDOKO HOBKUNTZA-PROGRAMAREN BEKETARAKO

- **Berritasunen artean, aurtengo deialdiak %6 igoko du programako hirugarren urtean dauden ikertzaileen ordainsaria; lehen bi urteetarako laguntza osagarri bat izango da, alokairu gastuetarako**
- **2020-21 ikasturte honetan, 64 ikertzaile dira doktoretza-ondoko laguntzen onuradun, programa honen bidez**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du 2021-2022 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako laguntzak deitzen dituen agindua. Deialdi honek 2.824.460 euroko zenbatekoa dauka.

Programa honek doktoretza-ondoko lehen fasean dauden ikertzaileen hobekuntzarako bide bat eskaintzen du, gehienez ere hiru urteko iraupena izan dezakeena. Doktoreak lan-kontratu sinatu beharko du ikerketan diharduen euskal entitatearen batekin. Entitate hau izan daiteke unibertsitatea, ikerketa zentroa edo osasun arloko ikerketarako institutua, I+Gean egiaztatutako jarduna duena. Ezarpen-zentro honek egoitza Euskadin izan beharko du eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen agente gisa egiaztatuta egon beharko du.

Lau jarduera-lerro ditu programak. Bi lerro ikerketa orokorreko eremuan (laguntza berriak edo laguntza-berritzeak) eta beste bi lerro, berariazko ikerketaren eremuan (laguntza berriak edo berritzeak):

- Ikerketa orokorreko eremua (laguntza berrien lerroa), ikertzaile doktoreen kontratu berriak finantzatzeko. Zenbateko osotik 960.100 euro gordetzen dira lerro honetarako.
- Ikerketa orokorreko eremuan (laguntza-berritzeen lerroa), aurreko deialdietan emandako laguntzak berritzeko. Zenbateko osotik 1.710.960 euro bideratzen dira lerro honetara.
- Berariazko ikerketan (laguntza berrien lerroa) ikertzaile doktoreen kontratu berriak finantzatzeko. Zenbateko osotik 115.000 euro gordetzen dira lerro honetarako.
- Berariazko ikerketan (laguntza-berritzeen lerroa), aurreko deialdietan emandako laguntzak berritzeko. Zenbateko osotik 38.100 euro bideratzen dira.

Lerroak:	Total (€)
Ikerketa orokorra, laguntza berriak	960.100
Ikerketa orokorra, laguntza-berritzeak	1.710.960
Berariazko eremuetako ikerketa (Neutronika eta Hezkuntza), laguntza berriak	115.300
Berariazko eremuetako ikerketa, laguntza-berritzeak	38.100
Guztira	2.824.460 €

Ikerketa orokorreko laguntzak, honako ezagutza-arlo hauetako doktoretza-ondoko ikerketak burutzeko eskatu ahal izango dira: Oinarrizko Zientziak; Bizitza eta Osasun Zientziak; Ingeniaritzak, Teknologiak eta Arkitektura; edo Gizarte Zientziak eta Humanitateak.

Hezkuntzako ikerketa, ikerketa estrategikoaren arlo gisa

Berariazko ikerketaren eremuan, datorren 2021-2022 ikasturterako deialdi honek neutronika eta partikulen azelerazioan ikerketa bultzatzeko diru-laguntza lerroari eusten dio. Ikerketa arlo hau interes berezkoa da egun Europako Batasunean eta bereziki Euskadin, balio estrategiko handia baitu EAEko zientzia, teknologia nahiz industriaren etorkizunerako. Gainera, Euskadiko I+G+b garatzeko ere abagunea eskaintzen du. Gure erkidegoko zientzia-komunitatea arlo honetan sendotzea eta areagotzea lehentasunezko helburua da, Europako Batasunak ESS Lund espalaziozko neutroi iturriaren inguruan ezarri dituen helburu zientifikoak indartzeko. Ekimen hau, gainera, ikerketa estrategikoak bultzatzeko Hezkuntza Sailaren Ikur Estrategia berriaren baitan kokatzen da.

Neutonikoarekin batera, deialdi honetako berritasun gisa eta berariazko ikerketa eremuaren barruan, Hezkuntza arloa ere sartu da ikerketa-ildo berri gisa. Helburua hezkuntzaren arloko ildo estrategiko batzuetan ikerketa sustatzea da, hala nola digitalizazioa (metodologiak eta gaitasun tekno-pedagogikoak), gaitasun zientifiko-teknologikoak eskuratzea STEAM proiektuen bidez; edo kulturartekotasuna eta eskola-arrakasta.

Arlo hau balio estrategikoko eremua da euskal hezkuntza-sistemaren etorkizunerako, eta, gainera, aukera bat da I+G+b-ren etorkizunerako, euskal hezkuntza-sistemarekin lankidetzan. EAEn arlo honetako komunitate zientifikoa indartzea eta zabaltzea lehentasunezko helburua da Hezkuntza Sailarentzat, bikaintasuneko ikerketaren emaitzak bere egiten dituen politikaren barruan.

Hirugarren urteko ikertzaileen ordainsariak % 6 igotzea

Gorago aipaturiko ezarpen-zentroren batekin lan-kontratua sinatzen duen ikertzaile doktorea izango da laguntza hauen onuraduna. Baina ezarpen-zentro horrez gain, doktoreak atzerriko zentro bat ere izango du, eta bolada baterako hara lekualdatuko da bere ikerketa lana burutzera. Atzerriko zentroak ere unibertsitate edo ikerketa-zentroak izango dira.

Kontratua sinatzearekin, laguntza emateko arrazoi izan den ikerketa-proiektua eskusibotasunez egiteko konpromisoa hartzen du doktoreak. Kontratu honen iraupena urtebetekoa izango da, baina urtebeteka luzatu ahal izango da berrituz gero, gehienez ere 36 hilabete arte.

36 hilabete horiek bi fasetan antolatuko dira: lehenengoa 24 hilabetekoa izango da gehienez, eta ikertzailea atzerriko ikerketa-zentro batera joango da, bere ezarpen-zentroa utzita, ikerketa-proiektu bat gauzatzeko. Bigarren fasea, berriz, 12 hilabetekoa izango da gehienez; fase horretan, ikertzailea Euskadiko ikerketa-talde batean sartuko da. Lehen bi urte horietan laguntzaren onuradunak atzerriko zentrora urtean joan-etorriko bidaia bat finantzatzeko osagarri bat izango du.

Berritasun gisa, deialdi berri honek %6 igoko du doktoretza-ondoko ikertzaileek programaren hirugarren urtean jasotzen duten laguntza. Igoera honen bidez, nazioarteko esperientzia duten ikerlarien ordainsariak hobetzen dira, lekualdatutako euskal herritarren itzulera-politika indartzen da, eta euskal sistema zientifikoa integratzen dira hauek.

Horrez gain, eta hau ere berritasuna da, 2021etik aurrera, laguntza osagarri bat ematen zaie onuradunei, lehen bi urteetako alokairu-gastuetarako, atzerriko joan-etorrien eta egonaldien eragin ekonomikoa murrizteko.

64 ikertzaile

2020-2021 ikasturte honetan, 64 euskal ikertzaile dira doktoretza-ondoko laguntza hauen onuradun: 25 ikertzaile, onuradun berriak dira, eta gainerako 39 ikertzaileek laguntza berritu egin dute. Gaur onartutako deialdiari esker, 2021-2022 ikasturtean 28 ikertzaile berri kontratatzea ahalbidetuko da (hau da, aurreko deialdiarekin alderatuta % 7,5 gehiago), bai eta doktoretza ondoko 44 kontratu berritzea ere; hala, programak 72 ikertzaile izango ditu jardunean ikasturte berrian.

Programa honen bidez, Hezkuntza Sailak ikertzaileen prestakuntzan kalitatearen eta eraginkortasunaren aldeko apustua egiten duen eredu bat sustatu nahi du. Era berean, urtero ebaluatu daitekeen lan-kontratu baten bidez, ikertzaileak mundu profesionalaren errealitatera hurbiltzen ditu, eta zientziaren eta teknologiaren alorrean ikertzaile belaunaldi berri bat sortzea sustatzen du. Programak, funtsezko lau elementu ditu oinarrian: belaunaldien arteko erreleboa; Euskadiko I+G+bren jarraikortasuna; nazioartekotzea eta bikaintasuneko ikerketa eremu berriei bultzada ematea.

Hezkuntza

343.000 EURO STEAM HEZKUNTZAKO BERRIKUNTZA-PROIETUAK GARATZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, itunpeko ikastetxeek 2021-2022 ikasturtean STEAM hezkuntzako berrikuntza-proiektuak gara ditzaten dirulaguntzak ematen dituen Agindua.

343.750 euroko diru kopurua duen deialdi honen helburua da, Euskadin Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa ematen duten itunpeko ikastetxe pribatueetan 2021-2022 ikasturtean STEAM hezkuntzako berrikuntza-proiektuak garatzea (Science, Technology, Engineering, Art & Mathematics).

Hezkuntza Sailaren STEAM Euskadi Estrategiaren helburuak honako hauek dira: hezkuntza-etapa guztietan hezkuntza eta prestakuntza zientifiko-teknikoa sustatzea, horretarako eragile sozioekonomikoak inplikatur; STEM eremuan bokazio eta asmo profesionalak inspiratzea, arreta berezia jarriz neskei; eta euskal herritarren artean dibulgazio eta kultura zientifiko-teknologikoa sustatzea.

Laguntza hauek eskuratzeko interesa duten ikastetxeek STEAM hezkuntzako berrikuntza-proiektu bat aurkeztu beharko dute, 2021-2022 ikasturtean beren geletan garatuko dutena. Proiektu horiek gorago adierazitako helburuak bete beharko dituzte. Proiektuen ezaugarrien artean, aipatzekoa da, ikasleei ebatzi beharreko erronka edo arazo bat planteatzen dieten egoeretan oinarrituko direla proiektuok, bizitzako hainbat arloekin lotuta (pertsonala, soziala, globala, lanekoa). Gainera, honako printzipio hauek hartu beharko dituzte kontuan: ikasgaien irakaskuntza integratua (diziplinartekotasuna), STEAM eremuari lotutako gaitasunen garapena, ikerketan/arakatzean oinarritutako ikaskuntza, genero ikuspegia, ekitatea, eta STEM lanbide-bokazioetan oinarritutako ikaskuntza.

Hezkuntza Sailak 2014-2015 ikasturteaz geroztik luzatzen die era honetakoko deialdia ikastetxe publikoei, euren STEAM hezkuntza-proiektuak gara ditzaten. Joan den ikasturtean, 2020-2021 ikasturtean, ikastetxe publikoentzako deialdiaren bidez, sare horretako eskolek aurkeztutako 162 proiektu finantzatu dira. Gobernu Kontseiluak gaur onartutako deialdiarekin, ekimena itunpeko sarera ere zabalduko da.

Osasuna

OSASUN SAILAK 2,7 MILIOI EURO BIDERATU DITU MATIA FUNDAZIORA, ADINEKOEN EGOITZETAN INSTITUZIONALIZATUTAKO PERTSONEN ARRETA FARMAZEUTIKORAKO

Matia Fundazioak Gipuzkoako 8 egoitza kudeatzen ditu, guztira 783 plaza

Gobernu Kontseiluak, Osasun Sailak eskatuta, 2,7 milioi euroko dirulaguntza izendatu du Matia Fundazioarentzat prestazio eta arreta farmazeutikorako, bi aldean artean ezarritako lankidetzeta-hitzarmenaren esparruan. Otsailaren 26ko 29/2019 Dekretua, egoitza bakoitzaren farmazia-zerbitzuari edo sendagai-biltegiari buruzkoa, indarrean jarri zenetik Euskadin ezarritako farmazia-prestazioaren kudeaketa-eredu berriaren emaitza da dirulaguntza. Laguntzaren zenbateko osoa lau ekitalditan banatuko da: 675.000 € 2021erako eta 675.000 € 2022, 2023 eta 2024rako.

Matia Fundazioak Gipuzkoako 8 egoitza kudeatzen ditu, guztira 783 plaza. Dirulaguntza honi esker, eta adinekoen egoitzetan farmazia-prestazioa kudeatzeko eredu berriaren arabera, horietako bakoitzak bere sendagai-biltegia izango du, eta Ricardo Bermingham Ospitaleko Farmazia Zerbitzuari lotuta egongo da. Era horretara, bermatuko da sendagaiak banatuko direla horiek finantzatzeko arau orokorren arabera, erabiltzaileen ekarpena barne dela, eta egoiliarren arreta farmazeutikoa hobetuko da. Arreta farmazeutiko horrek erreferentzia gisa hartuko du adinekoen egoitzetako Arreta Farmazeutikoaren Planean, Osasun Sailak ezarritakoan, agindutakoa.

Ricardo Bermingham Ospitalea Euskadiko Osasun Sistemaren barruan dago, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin itundutako zentroa baita, eta bertako Farmazia Zerbitzuak behar bezala baimendutako Ospitaleko Farmazia Zerbitzua du, Matia Fundazioak kudeatzen dituen 8 egoitzetako farmazia-prestazioaz arduratzen dena.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 2 MILOI EURO ERABILIKO DITU ENPRESA PRIBATUETAN EUSKARAREN ERABILERA ETA PRESENTZIA AREAGOTZEKO

Gobernu Kontseiluak 2 miloi euroko diru partida onartu du gaur 2021eko LANHITZ deialdirako. Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren ildo estrategikoetako bat euskara lan-munduan sustatzea da eta gaur onartutako dirulaguntza hauen bitartez EAEko sektore pribatuan dauden lantokietan euskararen erabilera eta presentzia areagotzea lortu nahi da. Laguntza hauek enpresetan euskara planak indartzeko eta bultzatzeko izango dira, izan ere, enpresetan euskara lan hizkuntza moduan garatzeko oso tresna baliagarriak dira Euskara Planak.

Euskara Eremu Sozioekonomikoan sustatzea da Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren helburuetako bat eta martxan du 2020-2023 urteetarako plana. Eusko Jaurlaritzaren XII. Legegintzaldirako 2020-2024 Gobernu Programak ere jasotzen du Euskara Eremu Sozioekonomikoan Normalizatzeko 2020-2023 Plan Estrategikoa garatzea.

Irail osoan zehar egongo da eskabideak aurkezteko epea. Enpresek gehienez 35.000 euroko dirulaguntzak jasoko dituzte eta ez da emango 1.000 euro baino gutxiagoko laguntzarik. Gainera, aurrez diruz lagunduak izan ez diren enpresen planek 3.000 eurorainoko gehigarria jaso ahalko dute.

Iazko deialdian guztira 117 enpresa lagundu ziren deialdia honen bidez, 4 Araban, 35 Bizkaian eta 77 Gipuzkoan.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO CREA EL FORO MULTIAGENTE DE TRANSICIÓN SOCIAL Y AGENDA 2030 EN EUSKADI

- Estará presidido por el Lehendakari y será un órgano de colaboración y asesoramiento para contribuir a la armonización y el desarrollo de la Agenda 2030 en las políticas públicas de Euskadi
- Integrarán el nuevo órgano representantes de todos los departamentos del Gobierno Vasco, las tres diputaciones forales, Eudel y los ayuntamientos de las capitales vascas, así como entidades representativas de la colaboración público-privada y de la sociedad civil organizada
- La creación de este Foro es una de las prioridades que se recogen en el *Programa Vasco de Prioridades de la Agenda 2030* aprobado recientemente por el Ejecutivo vasco

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el Decreto por el que se crea y regula el **Foro Multiagente de Transición Social y Agenda 2030 en Euskadi**, que será un órgano de colaboración y asesoramiento para contribuir a la armonización y el desarrollo de la Agenda 2030 en las políticas públicas de Euskadi.

El nuevo decreto se enmarca dentro del *Programa Vasco de Prioridades de la Agenda 2030* aprobado recientemente por el Consejo de Gobierno; concretamente la que hace referencia a la Coordinación y gobernanza colaborativa (Prioridad II).

El Foro será presidido por el Lehendakari y estará integrado por representantes de todos los departamentos del Gobierno Vasco; las tres diputaciones forales; EUDEL y cada una de las capitales vascas; las universidades del País Vasco; tres personas en representación de las entidades del Tercer Sector de Euskadi, a propuesta de Sareen Sarea; una persona en representación de la asociación Centro de Excelencia Basque Center for Climate Change (BC3); una persona en representación del Consorcio Científico-Tecnológico, Basque Research and Technology Alliance (BRTA); y una persona en representación de ACLIMA, Basque Environment Cluster.

El nuevo órgano se estructurará en Pleno, Comisión Permanente y Comisiones o Grupos de Trabajo y, entre otras, tendrá las siguientes funciones:

- Contribuir al establecimiento y elaboración de directrices y líneas de orientación estratégica para la implementación de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) en Euskadi.
- Analizar, impulsar, fomentar y proponer la planificación de una Agenda 2030 vasca, coordinada e integral, para alcanzar los objetivos recogidos

en la misma y colaborar en el desarrollo del Programa Vasco de Prioridades de la Agenda 2030.

- Remitir al Gobierno, con carácter no vinculante, iniciativas y propuestas que considere convenientes para la mejora de las actuaciones en materia de Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS).
- Cualquier otra función que coadyuve a la promoción, impulso y desarrollo de la Agenda 2030 en Euskadi, mediante la coordinación interinstitucional y la cooperación multinivel.

El Pleno del Foro se reunirá con carácter ordinario un mínimo de dos veces al año y, siempre que sea posible, se realizará vía telemática, por un compromiso con los criterios de sostenibilidad. El número y el ámbito de actuación de la Comisión Permanente y de las Comisiones o Grupos de Trabajo será acordado en el seno del Foro Multiagente de Transición Social y Agenda 2030.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA UN PROYECTO DE LEY QUE DEFINE Y CONSOLIDA UN MODELO PROPIO DEL EMPLEO PÚBLICO VASCO

- **El proyecto de ley de Empleo Público Vasco regula la actividad de más de 100.000 empleados que trabajan en las administraciones públicas vascas**
